

BENETAKO MAITASUNA

Maialen Sarasua

Orio, 15 urte

1750 aldera izango zen, Karoline ezagutu nuen lehen eguna. Nik, orduan, 13 urte nituen, baina baziren bi besteen etxeetan lanean nenbilela. Familia xumekoa eta neska izanik ezin izan nituen ikasketak burutu; irakurtzen eta idazten ikasi nuen arren, nire gurasoentzat, izan behar nuen gaitasun bakarra etxeko lanei zegokien. Nahiko abila nintzen nire lanean, baina Monti konteak bere alabaren zerbitzari personala izateko aukeratu baninduen, nire itxuragatik izan zen. Egia aitortu behar bada, ez zegoen inguru haietan nire presentzia zuen zerbitzaririk.

Lur koloreko adats luzea nuen eta kontu handiz zaintzen nuen melokotoi azala. Begiak, berriz, txikiak eta urdinak, gaur egun bezala, agian, gaztetasun hartatik gordetzen ditudan oroigarri bakarrak. Gorputza liraina nuen eta gerria mehea. Ama ondo arduratu zen horretaz, zazpi urtetan eramanarazi baitzidan arnasa hartzen ere ia uzten ez zidan kortse gogor bat. Dena, egunen batean, Monti kondea bezalako gizon aberats baten etxean lan egin ahal izan nezan eta lortu zuen nahi zuena, bai horixe!

Egun hartan, itxura ezin hobea nuen. Nituen xox guztiak soineko orlegi luze batean gastatuak nituen eta trentza kiribildu batean jasoa ilea. Atea,

zerbitzari atsegin batek ireki zidan eta andereño garrantzitsu bat banintz bezala itxaron gelaraino lagundu ninduen. Behin han, zutik geratu nintzen zain, eserita, soinekoa zimurtuko nuen beldurrez. Agian ez ziren hamar minutu besterik pasatu izango, baina ni, ordubete igaro izan balitz bezala sentitzen nintzen. Oraindik ez zen inor ageri eta, urduri, sutondora hurbildu eta tximinia gaineko apala ikuskatzeari ekin nion.

Bat-batean, norbait begira nuela nabaritu nuen, eta ustekabean, gorputza biratzean, apalean zegoen kristalezko ontzi bat lurrera bota nuen. Beldurtuta, makurtu eta pusketak jasotzen hasi nintzen, baina hain nengoen urduri, beira pusqueta batekin ebakia egin nuela. Orduan, nire alboan makurtu eta zauritutako eskua heldu zidan norbaitetik. Pixkanaka-pixkanaka zutitzen lagundu eta burua altxatzeko eskatu zidan. Lotsaz beterik begiak jaso eta inoiz ikusi nuen izakirik ederrenarekin topatu nintzen.

Hain harrituta nengoen, ez nuela zerbitzarien burua, soinuak erakarrita, egongelan sartzen ikusi.

– Zer gertatu da? -galdetu zuen. –Andereño ongi al zaude?

– Bai, bai –erantzun zuen berak ahots gozo batekin. –Lasai Maribel! Nire errua izan da. Jantziaren ertz batekin ontzia ikutu eta lurrera erori da –jarraitu zuen. –Orduan... -eta niri begiratu zidan izena jakin nahi balu bezala.

– Donatella -hitzegin nuen, –Donatella Jameda.

– Orduan –segitu zuen– Jameda andereñoa makurtu eta ontziaren zatiak jasotzen hasi da, oso zorte txarrez ebaki egin delarik. Mesedez, zoaz sukaldera eta ekar ezazu zauria garbitu eta babes-teko zerbait.

– Segituan -erantzun zion Maribelek eta burua jaitsiz agurtu eta joan egin zen.

Bakarrik geratu ginenean, bera nigana biratu eta irribarre egin zidan esanez:

– Ez esan ezer. Ez da zure errua izan. Beno, ez naiz aurkeztu, Karoline Monti naiz.

– Kaixo! Ni... badakizu. Donatella -mintzatu nintzen urduri.

– Barkatu, zu al zara nire lagun berria? -galdetu zidan, lagun hitzari doinu berezia emanaz.

– Beno... Bai -erantzun nion –Zure zerbitzaria nauzu, onartzen banauzu behintzat andereño.

– Mesedez, dei iezadazu Karoline. Orain, barkatuko didazu, baina joan beharra daukat. Maribelek sendatuko dizu zauria eta erakutsiko dizu zuen gela. Gero arte Donatella!

– Bai agur andereño! -agurtu nuen soinekoarekin keinu eginez.

– Karoline! -zuzendu ninduen atetik.

– Bai hori... -xuxurlatu nuen eta pentsakor geratu nintzen. Ez nuen inoiz pentsatuko horrelako pertsona batentzako lan egiterik.

Karoline benetan ederra zen. Polita kanpotik eta maitekorra barrutik. Hasiera hasieratik tratatu izan ninduen ondo, persona bat bezala, ez zerbitzari soil baten moduan.

Goiz hartan bertan, berak esan bezala, Maribelek nire gela erakutsi zidan. Nituen gauza guztiak maleta txiki batean sartuak zeuden eta berehala instalatu nintzen nire etxe berrian.

Gela xarmanta zen; sinplea, baina polita. Bigarren pisuan zegoen eta leiho handi bat zuen aurreko jardinerara ematen zuena. Ohea estua zen, baina biguna. Ordurarte laztozko koltxoi zakar eta gogorretan lo egin izandu nuen eta malgutasun hura ezezaguna zen niretzat.

Behin gela atondu nuenean, ohean etzan nintzen ahoz gora eta lehentxoago izan nuen topaketa oroitutua nuen. Karolinek ni baino urte bat gutxiago zuen, baina bere itxura hamabost urteko gazte batena zen. Ilea eguzki printzen parekoa zuen eta esmeralda koloreko begi bi nabarmentzen zitzaizkion porzelanazko azal zurian. Benetako andereñoa zen.

Egun hartatik aurrera, bere itzal bihurtu nintzen. Goizero bere logelara joan eta aurrez lixatutako soineko ikusgarri haietako bat janzten laguntzen nion eta gero, kontu handiz motots dotoretan biltzen nion ilea. Ondoren, Maribelek prestatutako gosari oparoa logelara igo eta gosaltzen zuen bitartean ohea egiteari ekiten nion. Berez, naturalena jantzi aurretik gosaltzea izango zen, baina Karolinek bere maniak zituen. Gosariaren ostean ur epelez garbitzen nion aurpegia eta hori egindakoa erramu hautsez estali aurpegiko azala. Hau guztia egiten ematen genuen goiza eta eguerdia iristean, bera aitarekin batera bazkaltzera eta ni beste zerbitzarien albora joaten ginenean.

Arratsaldeetan, Karolinek bisita ugari agurtu behar izaten zituen: ez dakit nongo kondea, hala-ko markesaren alaba eta horrelakoak...

Egun batez, lanean urtebete neramala edo, Monti Kondeak agindu zehatz batzuk eman zizkidan:

– Donatella –esan zidan. –Bihar inoiz baino ederrago egon behar du Karolinek. Gaur jostunarenean izan naiz eta enkargatua nuen soineko hauxe jaso dut. Bihar hau eraman behar du soinean. Ileari dagokionean –jarraitu zuen –esmeralda tiara hau erabil ezazu –eta besterik gabe soinekoa eta bitxia eman eta joan egin zen.

Hurrengo egunean, dena konteak esan bezala moldatu nuen. Jantziak printsesa batentzako egina zirudien eta benetan, Karoline printsesa baten pare zen.

Prestakuntza haien guztien zergatia, Roberto de Ungruño dukearen bisita zen. Berrogeita hamar urteko gizontzar hura Karolinen eskua eskatzera zetorren eta Monti Konteak, Ungruño, maila altuko gizon aberatsa zela jakinik, dena primeran ateratzea nahi zuen.

Bi gizonak segituan ailegatu ziren akordio batera, Ungruñok Karolinen edertasuna ziurtatzean ez baitzuen inolako eragozpenik agertu. Horrela ezkontza, neskatxak hamasei urte betetzen zituenean gertatzea erabaki zuten, urtebete lehenago Karoline dukearen palaziora aldatuko zela akordatuz.

Neskak ez zion garrantzia handirik eman konpromisu hari, gehienbat, ez zekielako ezkontza hi-

tzaren esanahi osoa. Lehen esan bezala, bere adina baino zaharragoa zirudien, baina barrutik bost urteko haurra bezain koitadua zen. Gainera, oraindik ezagutzeke zuen benetako maitasuna.

Gauzak horrela, bi urteren buruan Karoline eta ni, Ungruño dukearen jauregira joan ginen bizitzera. Bertan, Robertok beste zerbitzari bat ezarri zion Karolineri, niri lagun ziezadan. Jakeline zuen izena eta ni baino zaharxoagoa zen. Gorputz ederra zuen, benetan erakargarria eta zurrumurruek ziotenez dukeak ohe laguntzat zeukan. Hasieran zail egin zitzaidan berarekin fidatzea, baina Karolinek estimutan hartu zuenez, nik ere laguntzat hartu nuen, zalantza askorekin izan bazen ere.

Ordutik bodara bitarteko egunak errutinaz igaro ziren. Karoline egunero irteten zen Ungruñok oparitu zion zaldi zuri batean basoan zehar ibiltzera eta Jakelinek eta biok oinez jarraitzen genion gertutik ibilaldi hartan. Gero, orduak eta orduak bera apaintzen igarotzen genituen, jostailuzko panpina bailitzan.

Ibilaldi haietako batean, maiz egin ohi zuen bezala, Karolinek abiadura azkartu zuen eta bi zerbitzariok zerbait urrutiratu gintuen. Trosta azkarrean basoan barneratu zen eta zuhaitz artetik zebilela zerbaitek buruan jo eta erori egin zen. Gu atzerago geundenez ez ginen gertatutakoaz ohartu, baina berak esan zigunez, konortea berreskuratzean bi mutikoren aurrean aurkitu omen zen.

Mutil haiek, inguruko gaztelu bateko semea eta morroia ziren. Westwood-eko markesaren lehen

semea zen Alain. Mutil galant eta prestua. Ile beltz ugaria zuen eta zaldun baten eitea. Morroia, berriz, Marko deitzen zen eta Alainentzat zerbitzaria baino gehiago laguna zen. Bilo kizkur ederra zuen eta gorputz laburra, haur baten modukoa.

Dirudienez, goiz hartan basoan zebiltzan, harriz animaliarene bat harrapatu nahian eta zoritxarrez, harri haietako batek Karoline kolpatu zuen. Gazteak beldurturik neskatilarengana hurbildu ziren ondo zegoen ikusteko eta orduan, Alain, Karoline zuhaitz batean ezarri eta buruko kolpea begiratzen ari zitzaiola neskatoren begi orlegiekin topatu zen. Zuzen-zuzen begiratzen zioten eta berak ere ezin izan zion begiradari eutsi. Horrela, elkarri begira geratu ziren biak denbora luzez eta soilik zaldiaren bila joana zen Marko itzultzean iratzarri ziren beren ametsetik. Gu ere orduantxe jabetu ginen Karolini gertatutakoaz eta korrika beragana zuzendu ginen. Alainez hurbiltzen ari ginela ikusirik, Markori keinu bat egin eta alde egiteko seinalea egin zuen, baina joan aurretik andereñoaren begietara so egin eta “barkatu” bat xuxurlatu zion.

Topaketa hartatik aurrera, Karoline ez zen lehengo neskatxo arduragabea izatera itzuli. Zerbaitek sustraiak bota zituen bere bihotzean eta oraindik ohartzen ez bazen ere maitasuna pixkanaka loratzen zihoan bere erraietan. Nirekin ere ez zen lehen bezala mintzaten, geroz eta ixilago zegoen. Gutxitan egiten zuen irribarre eta denen aurrean jarrera urruna mantentzen zuen. Egunean birritan irteten zen zaldiarekin, norbaiten bila,

agian... baina inoiz ez zuen inor topatu eta honek tristuraz bete zuen.

Egunak joan egunak etorri, urtebete igaro zen eta iritsi zen ezkontza eguna. Karolinek, ohitura zen bezala, soineko zuria jantzi zuen eta Ungruñok oparitutako bitxi garestiez apaindu zituen lepo, buru eta belarriak. Oso dotore zegoen, ederra, baina bere irribarreari malkoak zerizkion, tristura amaigabe batek inguratzen zuen. Baina jendea ez zen horretaz konturatu. Nik nabaritu nuen soilik, nire barruan sartzen zihoan aizto hotz bat bezala sentitzen bainuen.

Sentimenduak zapalduz ezkontza burutu zen eta nire Karoline kuttuna, Roberto de Ungruño, gizon zarpail zaharrarekin ezkondu zen. Festa eta bazkaria izugarriak izan ziren. Bostehun pertsonatik gora bildu ziren eta dukea ez zen diruaz arduratu.

Ungruño jada berrogeita hamabi urteko gizona zen, baina ez zen batere zaindu bere bizitzan zehar eta gutxienez hirurogehi zituela zirudien. Aurpegi biribila zuen eta maltzur irudia ematen zion bigote luzea. Hori, bere gorputz handiari gehituta gizon nazkarragi bihurtzen zuten, nire begietara behintzat. Baina fisikoa alde batera utzita, Roberto oraindik eta gorrotagarriagoa zen. Bizpahiru neskaekin, horien artean Jakeline, oheratzen zen eta ez zuen bere bizitza miserablean zehar emakume bakar bat ere maitatu eta ez zuen maite Karoline ere. Bere gatzetasunaz gozatu nahi zuen soilik eta Ungruño kastaren etorkizuna bermatuko zuen seme bat edukitzeko behar zuen.

Horrela bada, luxuz inguraturik ezkondu ziren biak eta ospakizunaren ondoren, Roberto moz-kortzen zen bitartean, Karolinek gonbidatuak agurtzeari ekin zion. Aspergarria zuen zeregin hura, batez ere, pertsona pila zituelako ezezagun. Baina ezezagun mordo haien artean, Karolinek aurpegi amestu bat topatu zuen.

– Kaixo! –agurtu zuen. –Karoline de Ungruño nauzu, eskerrikasko gure ezkontzara...

– Tsss –moztu zuen gazteak hatzarekin Karolinen ezpainak ukituz. –Badakit nor zaren eta zuk ere ezagutzen nauzu ni. Ez? –galdetu zuen.

– Bai –ezagutzen zaitut, baina ez zenidan zure izenik esan.

– Alain erantzun zuen mutilak. Eta biak ixilik, basoan bezala, elkarri begira geratu ziren.

Gero, Karolinek besteak agurtzen jarraitu zuen eta “Kaixo, zer moduz?” artean ospakizuna amaitutzat eman zen. Karolinentzako zorte onez, Ungruño mozkorregia zegoen ezer egiteko eta lokartu ezin bazen ere, gutxienez bere pentsamen-duak antolatzeke beta izan zuen. Dena argi zeukan. Barnean sentitzen zuen ezinegon hura maitasuna zen, benetako maitasuna eta bazekien Alaineke ere sentipen berbera zeramala bihotzean. Baina konturatzean erlazio hura ezinezkoa zela eta betirako, alboan etzanda zuen gizon gorrotogarri-ri lotua zegoela. Orain ulertzen zuen konpromisu hark zuen esanahiaz.

Ezkontza egunaz geroztik, Alain eta Karoline egunero elkartzen ziren, basoaren intimitatean zal-

dian ibilaldi bat emateko eta errealitatetik ihes egiteko. Jakeline eta nik ezin genion jarraitu, neskak berak eragozten zigun, baina batzuetan Jakelinek bere atzetik basora alde egiten zuen. Zergatik? Orduan ez nekien arrazoia eta gertaera honetaz Karoline informatu banuen ere, halakoa zen bere tristezia, buruarekin baietz esanez ez ziela nik esandakoei jaramonik egiten.

Horrela, neskatxaren maitasun mina areagotzen joan zen eta laster mamu bat baino gutxi gehiago bihurtu zen. Zaldizko ibilaldi haietan bakarrik berreskuratzen zuten bere begiek antzinako argitasun hura eta Alain ikustean soilik arintzen zitzaion zintzilik zeraman zama.

Ungruñori zegokionean, ez zen batere ardura-tzen bere emaztearen egoeraz. Karoline seme bat edukitzeko bakarrik nahi zuen eta astean behin derrigortzen zuten neskatxa dukearen ganbarara joatera. Gainontzeko egunetan Robertok Jakeline bezalako neskak erabiltzen zituen eta dukearentzako haragia besterik ez baziren ere, Jakelinek uste zuen bera zerbait berezia zela gizon boteretsu harentzat. Bihotzaren barrenean, denontzat mespretxagarria zen hark zulotxo bat egina zuen eta neska gaixoa itsuki maitemindua zegoen.

Horregatik, Karoline zaldiz ibiltzera joan zen egun batean, korrika dukearengana jo eta honela esan zion:

– Roberto. Hartz bat begiztatu dute basoan eta aspalditik aukera honen zain zaudenez, gainontzeko zaldunei abisatu aurretik zugana etorri naiz.

Noski gezurra zen hartzarena, baina aitzakia bikaina zen dukea basora eramateko.

– Ongi da. Ez iezaiozu inori ezer esan. Hartz hori nirea da! –eta hau esatearekin batera eskupeta hartu, larruzko botak jantzi eta zaldi beltz batera igoz zuhaitz artean galdu zen Jakeline korrika atzetik abiatu zelarik.

Karoline eta Alain haran txiki batean zeuden lurrean etzanda, elkarri ferekak egiten. Bien artean lotura ikustezin bat zegoen, izaki beraren bi zati izango balira bezala, ispilu beraren bi alde... Laztanen ondoren musuak etorri ziren eta bi maiteminduak ezpainak elkartuta zituztela Ungruño dukea agertu zen bere zaldi dotorearen gainean.

Bere emaztea beste baten besoetan ikustean amorruez bete zen eta neskatxarenganako sexu harreman batek soilik lotzen bazuen ere, bere oho-rea zikinduta ikusteak sumindu egin zuen eta ezpata eskuan, zalditik jeitsiz honela oihukatu zion Alaini:

– Hi! Putaseme halakoa! Har ezak ezpata gizona bahaiz!

– Ez dut nahi zurekin burrukatu –erantzun zion Alaineck.

– Roberto! Mesedez... –errukitu zion Karolinek.

– Ixil zaitetz urdanga halakoa! Behar dudana semea ematen didazun bezain laster sutan erreko zaitut, zaren sorginari zor zaion moduan –oihu egin zion emazteari ostiko emanetz.

Alaineck hura ezin izan zuen jasan eta ezpata hartu zuen gorrotoz, Ungruñori desafio eginez.

– Hori da! Hori da! Aurrera mutikotxo! –animatu zuen dukeak burla eginez.

Horrela bi zaldunak ustekabeko borrokaren aurrean aurkitu ziren. Ungruño inguruetakoz ezpatalaririk onena zen eta Alainez zereginik ez bazuen ere, ausart burrukatu zen, Roberto zauritzera ailegatu zelarik. Baina zoritxarrez, zauri hark dukearen haserrea gehitzea besterik ez zuen lortu eta hurrengo ezpatakadak zuzen zuzen Alainen bihotzean jo zuen, mutila momentu berean lurrera erori zelarik hilda. Karoline bere maitearengana hurbildu zen eta berdina egin zuen zuhaitz artean eskuraturik zegoen Jakelinek ere bere amorantea zaurituta ikustean.

– Roberto! Ongi al zaude? –galdetu zion negarez bere hanketara makurtuz.

– Aldegin ezan hemendik! Emagaldua! –izan zen dukearen erantzuna eta ostiko emanaz albo batera bota zuen.

Jakeline orduan konturatu zen horrenbeste maite zuen gizon hartatik ez zuela mespretxua besterik jasoko eta lurrera erori zen Alainen ezpata hartuz, bizkarretik sartu zion alde alde Ungruñori. Dukea biratu eta belauniko erori zen zerbitzariaren aurrean. Bere aurpegian izua besterik ez zegoen, koldar batek heriotzaren aurrean zuen beldurraren keinua. Ondoren auzpez lurrera erori zen. Jakelinek poltsikotik aitzo bat atera eta labana eskuan Karolini barkamena eskatu zion, ondoren sastagaia lepora eraman eta zintzurra moztu zuen.

Ni han nengoen zuhaitz artean, Jakelini segika

etorrita Karolinen negarra begiratzen. Bere maitearen alboan zetzan Alainen ilea laztantzen eta etengabeko malko jarioan. Malko haiek nire bihotzeko odola izoztarazi zuten eta neguan urak harria birrintzen duen moduan, nire bihotza erdibitu egin zen.

Gertaera hartatik aurrera Karoline bere logelan giltzapetu zen. Ez zuen jaten, ez zuen hitzegiten eta bere barneko nahigabea handitzen joan zen, Alainen heriotzetik urtebetera, bere su txikia betirako itzali zelarik.

Ordutik, ni ere ez naiz lehengoa izan eta malenkolia mugagabe batek inguratu izan nau beti. Orduan ez nuen ezagutzen tristura horren zergatia, baina orain urte guzti hauen buruan aurkitu dut.

Orain ulertzen dut zergatik ez naizen inoiz inongo mutilez maitemindu. Gaur konturatzen naiz, Marko gizarajoari bere ezkontza eskeintzari uko egitean egin nion minaz. Orain dena dakit. Urteetan galdetu izandu naiz zergatik ez ote naizen maitemindu eta ordurako maitemindua nengoen eta oraindik maitemindua jarraitzen dut. Nire eskura ez zegoen pertsona bakarra desiratzen nuen, baina lortu ezin nuenez begiak itxi nituen egiaren aurrean. Bai orain ziur nago, nire benetako maitasuna Karoline zen eta nire alaitasuna bere azken arnasarekin batera galdu zen betiko.

Donatella Jameda